



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

2017ko ABENDUAREN 19an EGINIKO OHIKO UDAL BATZAREN AKTA

2017ko abenduren 19n, Asteasuko Udaletxeko Idazkaritzako bilera gelan, arratsaldeko 20.10 orduetan, Maria Pilar Legarra Cortajarena Alkate anderearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren Zinegotziak bildu ziren:

ALKATEA: Maria Pilar Legarra Cortajarena (Asteasu Batuz, AB)

ZINEGOTZIAK: Jose Ramon Ayerza Sarasua (Asteasu Batuz, AB)
Joseba Txapartegi Nieve (Asteasu Batuz, AB)
Maria Pilar Iturbe Urdangarin (Asteasu Batuz, AB)
Haritz Mugika Lasa (Asteasu Batuz, AB)
Antonio Elicegui Orbegozo (Asteasu Batuz, AB)
Aitor Usandizaga Izaguirre (Asteasu Batuz, AB)
Luke Uribe-Etxebarria Apalategi (EAJ/PNV)

IDAZKARIA: Jon Gil Beltza.

Alkate andreak, goian adierazitako orduan, irekitzat ematen du Udal Osoko Bilkura:

GAI ZERREDA:

1. Aurreko Udalbatzarraren akta onartzea:

- 2017.10.31ko Udalbatzarraren akta.

2. Azkeneko ohiko Udalbatzarretik igorritako Alkatetza ebazpenen berri eman:

- 2017.urtekoak (270-316).

3. AIU E-6 Zelaieta Xehetasun Azterlana: behin betiko onespena.

4. Erregu eta galderak.

.../...

LEHENENGO PUNTUA.

1. Aurreko Udalbatzarraren akta onartzea:

- 2017.10.31ko Udalbatzarraren akta.



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 8 (Legarra, Ayerza, Txapartegi, Iturbe, Mugika, Elicegui, Usandizaga, Uribe-Etxebarria)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz, bozketaren emaitza ikusirik Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien ahobatezko onespenerekin, aipatu akta onartu du.

BIGARREN PUNTUA.

2. Azkeneko ohiko Udalbatzarretik igorritako Alkatetza ebazpenen berri eman:

- **2017.urtekoak (270-316).**

Udalbatzarra jakinaren gainean geratu da.

HIRUGARREN PUNTUA

AIU E-6 Zelaieta Xehetasun Azterlana: behin betiko onespena.

2017ko irailaren 15ean (sarrera zenbakia: 515), [xxxxxxxxxxx](#) jaunak aurkeztu du AIU E-6 Zelaietako Xehetasun Azterlana, Ibai Kerejeta eta Igor Empan arkitektoek eta Olatz Mercader eta Patxi de Assas abokatuek 2017ko irailean idatzita.

Hasierako onespen hari buruzko iragarkia 2017ko urriaren 30ean eman zen argitara Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta egunkari batean ere, urriaren 27an, horrela, 20 eguneko epean, espedientea aztertu eta bidezkoak irizten ziren alegazioak aurkez zitezten. Ez da inongo alegaziorik aurkeztu.

Espedienteari Asteasuko Udaleko bitarteko idazkari kontuhartzailea eta arkitekto aholkulariaren txostenak erantsi zaizkio; espediente hau tramitatzekoan indarrean dagoen araudian aipatzen diren tramiteak bete egin direla kontuan hartuta.

Hirigintza eta Obretako Batzordeak aurretik irizpena eman du.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 8 (Legarra, Ayerza, Txapartegi, Iturbe, Mugika, Elicegui, Usandizaga, Uribe-Etxebarria)

Kontrako botuak: 0



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

Abstentzioak: 0

Beraz, bozketaren emaitza ikusirik Udalbatzak, bertaratutako kideen aho batez,

ERABAKI DU

Lehena. Behin betiko onespena ematea AIU E-6 Zelaietako Xehetasun Azterlanari, Ibai Kerejeta eta Igor Emparan arkitektoek eta Olatz Mercader eta Patxi de Assas abokatuak 2017ko irailean idatzita

Bigarrena. Xehetasunezko Azterketaren ale bat Foru Aldundiari bidaltzea 2/2006 Legearen 89. artikulua dioena betez, planeamenduari dagokion administrazio-erregistroan sar dezan

Hirugarrena. Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara ematea dokumentu horretan dauden hirigintza-arauekin batera, erabakia baita udalerrian zabalkunde handiena duten egunkarian ere, eta erabakia sustatzaileari jakinaraztea.

Egintza honek administrazioaren bidea agortu du, eta horren aurka, eta betebeharraren kaltetan gabe, gaia doakienek, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezaketela Euskal Herriko Justizi Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzi Aretoaren aurrean, Bilbon, (Barroeta Aldamar, 10) honako iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean; aldez aurre, gaia doakienek. Hori guztia, Administrazioarekiko auzi-eskumena arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 25. eta 10. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

LAUGARREN PUNTUA

Erregu eta galderak.

Ez dira aurkeztu.

Eta beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat ematen du gaueko 20.12 orduak direnean, nik Idazkariak, bertan jasotakoaren akta hau luzatzen dudalarik.

Asteasun, 2017ko abenduaren 31n.

Alkatea

Bitarteko Idazkari-Kontuhartzailea